



**2017KO URRIAREN 20KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko urriaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 98 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA ZORTZI MILA ETA LAUREHUN EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI (28.400,59 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, urriaren 5etik aurrera, astean 6 ordutik 10 ordura, onuradunak atentzio gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

LAZKAOKO
UDALA

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 17-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzetatik baja ematea urritik, udalerrri aldaketarengatik.
- 17-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € eta mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Laguntzaile gazteentzat bekak.-

- EIDER SAEZ IZQUIERDOrri, abuztuan TUMAINI erakundearekin Indonesiara egin duen bidaia solidarioaren barruan eta gastuaren fakturak aurkeztu ondoren, diru laguntza-
ren bigarren zatia, 618,89 €, ematea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurta-
tzen dudalarik.

